

NOLA ERABILI ZURE LEHEN TELEFONO ADIMENDUNA

Tresna oso boteretsua duzu esku artean. Aukera berri andana eskaintzen dizu; onak dira horietako asko, baina badira oso arriskutsuak direnak ere. Zoritxarrez, helduoi ere maiz zaila egiten zaigu kaltegarriak izan daitezkeenak antzematea. Beraz, tentuz eta erantzukizunez aritzea ezinbestekoa da.

Erabiltzaile onaren kodea:

- ✓ **Telefonoa zaindu.** Pantaila hauskorra da eta oso erraz jausten da irekitako poltsikoetatik. Inoiz galduko bazenu, ahalik lasterren abisatu behar diguzu.
- ✓ **Desblokeoa babestu.** Zure lagunek ezin dute jakin zein den desblokeo patroia/pasahitza. Sartzen duzunean zuk bakarrik ikusteko moduan egin. Adingabea zarenez gero, gurasook telefonora eta aplikazioetara sarrera izan behar dugu.
- ✓ **Leku eta une egokietan erabili.** Adostutako lekuetan erabil dezakezu (egongelan), besteetan ez (logelan, eskolan). Ez erabili telefonoa familiarekin edo lagunekin zaudenean jendeaz deskonektatzeko. Bideo-jokoek alde on asko dituzte baina astegunetan ez jolastu beraiekin.
- ✓ **Eduki egokiak ikusi.** Zure adinerako egokiak diren webguneak eta aplikazioak erabili. Joko odoltsuak edo oso bortitzak direnak ez dira egokiak.
- ✓ **Kontuz online partekatzen duzunarekin.** Online elkarrizketak aurrez aurrekoak bezalakoak dira. Ezagutzen ez dituzun pertsonekin aurrez aurre zaudenean bezala jardun behar duzu. Ez partekatu zure senideen ezta lagunen argazkirik, bideorik ezta beste inolako datu pertsonalik.
- ✓ **Adi ibili iruzurrekin.** Pertsonak eta egoerak beti ez dira diruditena. Erne egon zaitez erreala eta faltsua desberdinu ahal izateko, online zailagoa baita.
- ✓ **Ingurukoak lagundu.** Ez egin inori zuri egiterik nahi ez duzuna. Zure ezagun batek min hartzen duenean, esaguzu mesedez.
- ✓ **Zalantzarik baduzu, galdetu.** Aplikazio, webgune eta erabilera berriak agertzen dira etengabe eta denon artean hobeto asmatuko dugu zein den jokabide zuzena. Zerbaitek arduratzen bazaitu edo zalantzarik sortzen badizu, kontatu gurekin eta lagunduko zaitugu.

Zure gurasook telefono hau ondo erabiltzera eta berarekin modu osasungarrian gozatzera animatzen zaitugu. Askok maite zaitugu eta pilo bat poztuko gara gailu hau ondo erabiltzeko bezain arduratsua zarela erakusten badiguzu. Ematen duena baino zailagoa da ondo erabiltzea, baina zuek konfiantza osoa dugu. Erakutsiguzu gai zarela!

Telefonoa erabiltzea baimentzen dizugu:

Telefonoa ondo erabiltzera konprometitzen naiz:

(amaren eta aitaren sinadura)

(nire sinadura)